



Apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretua, Ekonomia eta enplegua babesteko premiazko neurri osagarriei buruzkoa (BOE, apirilaren 22koa)

BOEn argitaratu eta biharamunean –2020ko apirilaren 23an– indarrean jarri dira zerga arloko neurri hauek:

BEZ-AREN ZERGA TASA

- **100eko 0ko tasa, COVID-19aren ondorioak eragozteko behar diren ondasunekin egiten diren hainbat eragiketatan**(8. artikulua)

2020ko apirilaren 23tik aurrera eta 2020ko uztailaren 31ra bitartean, BEZaren 100eko 0ko tasa aplikatuko zaie aipatutako errege lege dekretuaren eranskinean jasotako ondasunen entreegi, inportazioei eta batasun barruko eskurapenei, baldin eta haien hartzaileak zuzenbide publikoko entitateak, ospitale klinikak edo zentroak edo izaera sozialeko entitate pribatuak badira (BEZaren Legearen 20.Hiru artikulua).

Eragiketa horiek eragiketa salbuetsi moduan dokumentatuko dira fakturan. Dena den, 100eko 0ko zerga tasa aplikatzen bada, ez da mugatuta geldituko eragiketa egiten duen subjektu pasiboak jasandako BEZaren kenkarirako eskubidea.

- **100eko 4ko tasa, liburu, egunkari eta aldizkari digitaletan** (azken xedapenetan bigarrena)

2020ko apirilaren 23tik aurrerako ondorioekin, aldatu egin da BEZaren Legearen 91. artikuluko Bi.1 apartatuaren 2. zenbakia. Hortaz, 100eko 4ko tasa aplikatuko zaie liburu, egunkari eta aldizkariari, baita elektronikoki emandako zerbitzutzat hartzen badira ere. Horrela, desagertu egin da zerga tasei dagokienez paperezko liburuaren eta liburu elektronikoaren artean zegoen aldea.

BEZ-AREN ERREGIMEN BEREZI SINPLIFIKATUA

- **BEZaren erregimen sinplifikatuari tazituki uko egiteak dituen denborazko ondorioak mugatzea 2020ko ekitaldian** (10. artikulua)

Erregimen berezi sinplifikatuari uko egiten diotenean, 2020ko lehen hiruhilabeteari dagokion autolikidazioa aurkezteko epean (epe hori 2020ko ekainaren 1era arte luzatu da) erregimen horretara bilduta dauden zergadunek etekina erregimen berezi horren arabera zehaztu ahal izango dute berriro 2021eko ekitaldian, baldin eta hura aplikatzeko beharkizunak betetzen badituzte eta erregimen bereziaren ukoa erregelamenduz jarritako epean errebokatzen badute (BEZaren Erregelamenduko 33.2 artikulua).

- **BEZaren erregimen sinplifikatuaren hiruhilabeteko kuotaren kalkulua, 2020ko ekitaldian alarma egoera deklaratzearen ondorioz** (11. artikulua)

Azaroaren 22ko HAC/1164/2019 Aginduaren II. eranskinean jasotako enpresa edo lanbide jarduerak egiten dituzten eta BEZaren erregimen berezi sinplifikatura bilduta dauden BEZaren subjektu pasiboek ez dituzte kontatuko, 2020ko hiruhilabete natural bakoitzean, jarduera egiteko erabilitako egun gisa, hiruhilabete horretan alarma egoera deklaraturata egon diren egun naturalak.

Guztira 18 egun naturaletan deklaraturata egon da alarma egoera 2020ko lehen hiruhilabetean.